

2021. Ordenantza fiskalak. Behin betiko onarpena 2020ko irailaren 25ean izandako Bermeoko Udaleko Osoko Bilkuran BAO 2020/10/06. 192. zk.

SASTARRAK BATZEAGAITIK ORDAINDU BEHARREKO TASA ARAUTZEN DUEN ORDENANTZA FISKALA

1. artikulua: OINARRIA ETA IZAERA

Tokiko Ogasunen 9/2005 Foru Arauaren 21. artikuluko 1 eta 4 ataletan ezarritakoagaz bat etorrita, udal honek sastarrak batzeagaitik tasea eskatuko dau.

2. artikulua: EGITATE EZARGARRIA

1.- Tasa honen egitate ezargarria da etxeko sastarrak batzeko eta etxebizitza, bizitoki eta lokaletako uriko hondakin solidoak jasotzeko nahitaezko zerbitzua emotea.

2.- Horretarako, etxeko sastarrak eta uriko hondakin solidotzat hartuko dira lokalen eta etxebizitzan ohiko garbiketarik ateratako janari hondarrak edo detrituak, eta kontzeptu horretatik salbuetsita dagoz industriako hondakinak, giza detritua, kutsatutako materia eta material arriskutsuak edo korrosiboak edo bilketan edo isurketan neurri higieniko, garbiketako neurri edo segurtasun neurri bereziak eskatzen dituenak.

3.- Sastarren zerbitzua etetea lortuko da eraikina zaharberritzeko obra nagusia egiten dan artean bizigarritasun baldintzarik ez dagoanean eta beti be obra lizentzia eskatu eta emoten bada. Edozein kasutan Udalak, egiaztatuta, erabagiko dau zerbitzua eten behar dan ala ez.

3. artikulua: SALBUESPENAK

Ez dute tasa ordaindu behar izango eraitsitako, udalak aurri egoerea adierazita edo udalaren arabera bizitzeko baldintzarik beteten ez dituzten finkek edo higiezinak.

4. artikulua: SUBJEKTU PASIBOA

Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko martxoaren 10eko 2/2005 FORU-ARAUko 34. artikuluko 1 eta 2 ataletan eta Toki Ogasunei buruzko abenduaren 16ko 9/2005 FORU-ARAUko 24. artikuluko 1.b eta 2.a ataletan oinarrituta, zerbitzua emoten jakon etxebizitza, lokal edo bestelako higiezinetakako jabeak dira tasaren subjektu pasiboak eta ordezeko subjektu pasiboak, hau da, tasa ordaintzeko bete beharra daukienak.

5. artikulua: Erantzuleak

1. Subjektu pasiboaren zerga betebeharrei solidarioki aurre egingo die, Zergei buruzko Foru Arauaren 41. artikulua aitpatzen dituzten pertsona fisikoek eta juridikoek.

2.- Zergei buruzko Foru Arau Orokorraren 42. artikuluan aipatzen diren pertsona edo erakundeak arduradun subsidiarioak izango dira.

6. artikulua: TASA KUOTA

a-. Hiruhileko kuota finko bat izango da tasa kuotea, higiezinaren erabilerearen eta bertan egiten diran jardueren arabera, honako epigrafe hauei jarraituta:

	2021 (€)
1- epigrafea: Etxebizitzak	
1.1 Etxebizitzak	20,30
2- epigrafea: ostatuak:	
2.1- 10 persona baino gutxiago	57,25
2.2- 10 persona edo gehiago	72,94
3- epigrafea: Ikastetxeak:	
3.1- Ikastetxeak, Casa del Niño, Lanbide Heziketako Zentroa eta Institutua	84,41
3.2- Akademiak (edozein motatakoak) eta haurtzaindegiak	79,31
4- epigrafea: Edertasun-jarduerak:	
4.1- Edertze aretoak, gimnasioak, ule-apaindegiak, bizartegiak eta gorputzaren hobakuntzara zuzendutako beste edozein jarduera	79,31
5- epigrafea: Mediku kontsultak eta zentroak:	
5.1- Mediku kontsultak	76,09
5.2- Sorostegiak, mediku zentroak, haginlariak	95,71
5.3- Anbulatorioa eta Arrantzaleen mutua	95,71
6- epigrafea: Merkataritza orokorrean:	
6.1- Fruta dendak	84,94
6.2- 200 m ² -rainoko supermerkatuak	156,41
6.3- 201 eta 400 m ² bitarteko supermerkatuak	208,90
6.4- 401 m ² -tik gorako supermerkatuak	302,21
6.5- Elikagaien arloko bestelakoak, harategiak, arrandegiak	72,07
6.6- Merkataritzako gainerako aretoak eta kioskoak	
6.6.1-100m ² tik gorakoak	81,20
6.6.2-100m ² tik beherakoak	60,90
6.8- Botikak eta ortopediak	97,61
7- epigrafea: Ikuskizunetarako eta aisialdiko establezimentuak:	
7.1- Zinemak eta antzokiak	78,55
7.2- Diskotekak eta jai aretoak	102,57
7.3 Jolastokiak	72,64
8- epigrafea: Jatetxeak eta edaritegiak:	
8.1- Jatetxeak	192,93

8.2- Kafetegiak, Whiskitegiak, pubak, hanburgeseriak eta jatetxetzat hartu ezin daitekezan jantokiak	99,18
8.3- Barrak eta tabernak	92,12
8.4- Txokoak eta erretiratuen klubak	45,10
9- epigrafea: Bulegoak:	
9.1- Banketxeak	161,54
9.2- Beste bulegoak, autoeskolak, loteria eta ganerako joko saltokiak	87,37
9.3- Garraio publikoen (trena, autobusa) bulegoak	87,37
9.4- Atuneroak	161,54
10- epigrafea: Beste jarduera batzuk:	
10.0- 26 ibilgailu eta gehiagorentzat lekua daukien garajeak	99,79
10.1- 4tik gora eta 26tik behera ibilgailurentzako garajeak	79,31
10.2- 3 edo 4 ibilgailu gordelekua edo lokalak 60m ² edo gehiago	64,03
10.3- 1 edo 2 ibilgailu bakarrik gordeteko kapazitatea daukanean eta lokalak 60m ² baino gutxiago daukanean	45,98
10.4- Irabazteko asmo bako auzokideen komunitateen garajeak	45,23
10.5- Zentro ofizialak eta Kofradia	93,18
10.6- Itsasontzien loiak	79,31
10.7- Materialak eta ekoizkinak biltzeko bakarrik diran industria eta merkataritza tokien biltegiak	79,31
10.8- Lokal hutsak	11,38
10.9- Nekazarien sindikatua, garraio biltegiak, ardaua eta edariak banatzeko biltegiak	84,44
10.10- Petrolioaren eratorrien zerbitzuak	80,76
11- epigrafea: Industriak, biltegiak eta tailerrak:	
11.1- Herri barruko industriak eta tailerrak	146,05
11.2- Herri barruko jardueren biltegiak	80,22
11.4- Oinetako, altzari, tapizeria, iturgintza tailerrak	85,47
11.5- Industrialdeetako industria, biltegi eta tailerrak:	
11.5.1- Industriak eta tailerrak	158,30
11.5.2- Biltegiak	85,47
11.6- Ibilgailuak erakusteko eta garbitzeko lokalak	80,05
11.7- Gasaren Matxixakoko lur-planta	3.444,55
12- epigrafea: Zehazki tarifau ez diranak:	
12.1- Zehazki tarifau ez diranak	45,70
13- epigrafea: Lokalak	
13.1- Hutsik ez dauden lokalak	34,31
13.2- Etxebizitzen eranskinak ez diren trastelekuak	8,53

b-. Tarifa murriztuak kolektibo honentzat jasotzen dira:

Urtebetez aplika daitekeen tarifa murriztua, Bermeoko industria-gunean ez dauden jarduera berriak irekitzeagatik. Jarduera irekitzearen aurretiazko komunikazioan eskatu

beharko da murrizketa hau, eskari data horretatik aurrera aplikatzeko. Bestela, murrizketa eskaria egiten den egunetik hasita aplikatuko da murrizketa, atzera eraginik gabe, eta kontuan hartuta jarduera irekitzearen data. Lehenengo urte honetan % 50eko murrizketa aplikatuko da dagokion tarifa orokorraren gainean.

7. artikulua: Epigrafeak aplikatzeko arauak

1 - Establezimenduak igiritzeko aurre-komunikazioan edo lizentzia eskarian adierazten dan jarduera izango da kontutan epigrafea aplikatzeko, administrazioak egin leikezan egiaztapenen kalterik barik. Epigrafe hori berehala aplikatzea dakar, aurre-komunikazioaren edo lizentziaren egunari jagokon hiruhilekoan.

2 - Hutsik dagoan lokaltzat hartuko da ondasunak edo materialak biltzen/gordeten ez dan lokala eta jarduerarik egiten ez dan lokala.

3 - Jardueraren bat izan bada, jarduerari itzi jakola edo lokala itxi dala frogatu beharko dau interesdunak Ekonomi Jardueren ganeko Zergan eraginetarako baja aurkeztuta.

4 - Trastelekuen 13.2 epigrafea aplikatzeko honako hau izango da kontutan:

1. Nahiz eta eskritura publikoan trastelekua etxebizitzatik bereiztuta dagoan higiezin legez agertu, etxebizitza eta trastelekua eraikin bereko higiezinak izanda jabe bakarrarenak diranean biak eta beti ere trasteleku bateri bakarrik jagokonean, trasteleku ha etxebizitzari erantsita dagoala ulertuko da eta ez agertuko abonadu legez. Hau da, abonau bakarra etxebizitza izango da.
2. Eraikineko etxebizitza baten jabe bera trasteleku bat baino gehiagoren jabea danean, etxebizitzari erantsita dagoala eurentariko bat dala ulertuta, gainerako trasteleku bakotzak abonatua izan beharko dau eta 13.2 epigrafea aplikatuko jako.
3. Eraikineko etxebizitza bakar baten jabea ez dana baina bertako trastelekuren baten jabea danean, horrelako trasteleku bakotzak abonatua izan beharko dau eta 13.2 epigrafea aplikatuko jako.

5 - Higiezin batean jarduera bat baino gehiago garatzen bada edo erabilera bat baino gehiago badauka tasa zenbateko handiena daukan epigrafea aplikatuko da.

6 - Ibilgailuen gordeleku edota garajeei jagokezan epigrafeetan jarritako ibilgailu kopurua lokalak daukan kapazidadeari jagoko, ez zenbat ibilgailu sartzeko erabilten dan.

8. artikulua: ABONATUA

1- Tasa honen eraginetarako abonadua deituko jako eta epigrafeen arabera kuotea ordaindu beharko dau udalerrian kokatuta egonda saster-batze zerbitzua emoten jakon lokal-unidade baktxa, bardin izanda zerbitzua zein eratara emoten jakon.

Abonadua abonadu zenbakiagaz identifikatuta egongo da. Behin higiezinari ha erantsita aldaezina izango da, egite ezargarriaren kokapenari betiko lotuta.

2.- Eragin horreetarako, higiezin modura hartuko da:

- Eraikuntzea edo industria pabeloia, unidade txikiagoetan zatituta ez dagoana eta guztia, titularidade bakarrekoa izanda, erabilera bakar baterako erabilten danean. Abonatu bakarra izango da kasu honetan.

- Legeak Jaubetza Horizontalari buruz ezarritako erara bereiztutako jaubetza modura hartzen dan edo hartu leitekeen etxebizitza edo lokal baktxa, berari eratxikitakoa eta guzti. Higiezin bakoitzak abonatua izango du.

- Etxebizitza edo lokal bi edo gehiago gehituz lortzen da etxebizitza edo lokala, beti be, alkarren ondoan egon ezker, barrutik bat eginda, eta titularidade bakarragaz erabilera baktarrerako erabilten badira, abonatu bakarra ordainduko dute. Baldintza honeek egiaztatu egin behar dira, eskubidean onartua izan leitekeen eraren batera. Bestela lokal baktzarengatik abonatua ordaindu beharko da.

- Nahiz eta eskrituran edo katastroan higiezin bakar legez agertu, izatez erabilera ezberdinak daukazalako edo jarduera/erabileraren titular onuradun ezberdinak dagozalako, zatituta dagoala ulertuko da eta zati baktxa abonadua izango da.

9. artikulua: ABONADUEN KUDEAKETA

1- Saster-batze derrigorrezko zerbitzuaren errolda osatuko dabe abonaduek. Horrela aspaldiko zerbitzu hartzaile diran higiezinak abonadu legez erregistratuta egongo dira.

2- Eraikin barrietako banakako higiezonei, ofizioz, abonadu alta emongo jake bizigarritasun lizentzia edo lehen erabilerarako lizentzia eskuratzen daben hiruhilekoan bertan.

3- Abonadua izan behar baina ez dan higiezinaren jaubeak alta eskatzeko bete beharra dauka.

4- Zerbitzuko abonadu baktxak datu honeek eukiko dauz:

Abonadu zenbakia: aldaezina, beti bera

Abonaduren identifikazioa = higiezinaren identifikazioa = egite ezargarriaren lekua: zuzena dan heinean aldaezina eta oinarria katastroan daukana.

Jabea = Abonaduaren titularra = tasea ordaindu behar dauana: momentuan momentukoa

Epigrafea: benetako erabilera/jardueraren araberakoa: momentuan momentukoa

Tasa ordaintzeko era (eskuz edo banketxean helbideratuta): momentuan momentukoa

5- Higiezin baten garatzen edo garatuko dan jardueraren titularrak daukazan bete beharren kalte barik, jabearen bete beharra da bere jabegoko higiezonean garatzen edo garatuko dan jardueraren edo emoten jakon erabileraren barri udal administrazioari emotea, epigrafe egokia aplikatzeko.

10. artikulua: TASAREN SORTZAPENA

Tasa ordaindu beharra sortuko da, zerbitzuko abonatu lez, egitate ezargarria eragin duen udal jarduera hasten denean, berau hasi dela ulertuko da honako kasu hauetan:

- 1) Zerbitzua lehenengoz jartzen denean lehenago halakorik ez egoan tokian.
- 2) Bizigarritasunaren edo erabileraren lizentziak ematen diren momentuan, jarduera garatzen den edo etxebizitza erabiltzen den ala ez kontuan hartu barik.
- 3) Bizigarritasun edo erabileraren lizentzia eduki ez arren, higiezina bizitzeko edo jardueraren baterako erabiltzen denean.
- 4) Beste kasu guztietan, hiruhileko natural bakoitzaren lehengo egunean.
- 5) Egiaztapen eta ikuskapen espedientearen ondoriozko kasuetan, bertan zehazten denean.

11. artikulua: KITAPENAK ETA ORDAINKETAK

1- Zerbitzuaren izaera kontutan izanda tasa aldizkako kitapenei lotuta dago eta aplikagarria izango da horreetaz Kudeaketa, diru-bilketa eta ikuskapenari buruzko zerga ordenantzan xedatutakoa. Beraz zerbitzuan abonatu alta emanda egon ezker hiru hileko naturalean eroldaz, errezibozko kitapenez, kitatuko da tasa onartutako egutegi fiskalaren arabera.

2- Errekurtsoen, egiaztapen eta ikuskapen ondoriozko kitapenak, ordezkotako kitapenak eta osagarriak kitapen zuzenez egingo dira, Kudeaketa, diru-bilketa eta ikuskapenari buruzko zerga ordenantzan xedatutakoaren arabera.

12. artikulua: HELBIDERATZE DATUAK ETA AGINDUAK ALDATZEA ETA ZUZENTZEA

1- Abonatuen titularrek eskatu beharko dabe beti. Orokorrean, eskabidea egin eta hurrengo hiruhileko naturalean izango ditu ondorioak. Baina eskaria egiten den hiruhilekoan bertan eragina edukitzea gura izan ezker, onartu egingo jako hiruhileko errolda fiskala zarratuta ez badago.

2- Helbideratze datuak abonatuaren titularren tasa zorrei lotuta dagozan ezker, titularra aldatzean aurreko titularren helbideratze agindua berehala baliogabetuta geratuko da.

13. artikulua: ERAIKUNTZA BARRIEN ABONADU ALTA

Nahitaezko zerbitzua den ezker, etxebizitza edo eraikuntza berriei ofizioz emango zaie alta. Horretarako holan jardungo da:

1.- Eraikuntza berrien eta lanen bizigarritasun edo erabilera lizentziak eskatzeko unean, obraren jabeak udalari adierazi beharko deutso, eta halan jagokonean, egiaztatu beharko deutso, jabetzaren banaketa horizontalaren ondoriozko dependentzia denek edukiko daben erabilera.

2.- Bizigarritasun edo erabilera lizentzia datako hiruhilekoan dependentzia denei alta emango zaie saster-batze zerbitzuko erroldan, dagokion epigrafearen arabera. Abonatuaren jabea eta erabiltzailea obraren jabea, lizentziaduna, izango da.

3.- Jabegoaren titularra aldatu ezker, dagokion eskritura publikoa aurkeztuz frogatuta, higiezinari dagokion abonatuaren titularra aldatzeko eskatu ahal izango da. Aldaketaren eragina 14. artikuluan xedatutakoa izango da.

14. artikulua: ABONATUEN BAJAK

Zerbitzua nahitaezkoa dela kontutan izanda, abonatuaren bajea 3. artikuluan aurreikusitako kasuetan bakarrik lortu ahal izango da. Aurriaren adierazpen dataren, eraisteko lizentziaren dataren edo bizitzeko baldintzarik betetzen ez duenaren adierazpen dataren hurrengo hiruhilekoan edukiko du eragina abonatu bajak.

15. artikulua: TITULARTASUNA ALDATZEA

1- Titularidade aldaketa eskariak:

a) Abonatuaren titulartasuna aldatzeko bereziki dagoen inprimaki bidez eskatu beharko da beren beregi berh@z bulegoan, jabegoaren titular aldaketa erakusten duen agiria aurkeztuta.

b) Aurreko jabea da, nahitaez, baja eman gura duela adierazteko bete beharra daukana, beraz eskaria egiteaz arduratu behar dena. Heriotza kasuetan oinordekoak.

c) Eskaria egin eta hurrengo hiruhileko naturalean izango ditu ondorioak erroldan, salbu eta eskualdatzea eskaria egin deneko hiruhilekoaren aurretik egin dela erakusten bada. Horrela denean, eta beti be tasaren sortzapen eguna kontutan izanda eta errolda fiskala onartu barik badago, titulartasuna aldatzeak eskaria egiten den hiruhilekoan izango ditu ondorioak

d) Abonatuen titulartasuna aldatzeko inprimakian izenpea eta titularra utziko dira jasota beren beregi, aldaketarekin bat datozela frogatzeko.

e) Titulartasuna aldatu baino lehen hartutako zorrak aurreko titularraren izenean jarraituko dabe, beti be berorrek eukan kobrantza jardunbidearen kopuruaren eta egoeraren arabera. Inondik ezingo da hartutako zorraren titularra aldatu.

2- Ofizioz egindako titular aldaketak

Tributu kudeaketa Sailak agiri edo bestelako baliabideen bidez jabegoaren titularra aldatu dela jakinez gero, eskuz aldatutako higiezinari jagokon abonatuaren titularra aldatzeko eskaririk aurkeztu den egiaztatuko du. Eskaririk aurkeztu ez bada, ofizioz aldatzeko espedientea irekita aurreko titularrari eta berriari entzunaldia emango zaie, eta dagozkien kitapenak igorri eta itzuliko zaie, eskualdaketa eskrituren datak eta preskripzioko datak kontuan hartuta.

3- Bestelako eskariak:

Edozein arrazoiagatik titulartasuna inprimaki bidez aldatzerik ez badago titular berria izan behar duenak inprimakirik bete edo sinatu ez duelako, aurreko titularrak instantzia bidez eskatu leike titulartasuna aldatzeko, eskritura publikoa edo titulartasuna aldatzeko eskaera justifikatzen duen agiria aurkeztuta.

Eskaria egin eta hurrengo hiruhileko naturalean izango ditu ondorioak erroldan, salbu eta jabegoaren eskualdatze data eskaria egin deneko hiruhilekoaren aurretik izan dela erakusten bada. Halan danean, eta beti be tasaren sortzapen eguna kontutan izanda eta errolda fiskala onartu barik badago, titulartasuna aldatzeak eskaria egiten den hiruhilekoan izango ditu ondorioak.

Kasuz-kasu titularra aldatzeko erabakia hartuta jakinaraziko zaie aurreko titularrari eta berriari. Jakinarazpen hori nahiko izango da errolda fiskaleko aldaketarako ere, beraz bertan aipatzen den hiruhilekoko erroldan titular berria izango tasaren zorduna

16. artikulua: JARDUERA edo ERABILEREA ALDATZEA.

Jarduera edo erabilera aldatzean edo jarduerari ixtean epigrafea aldatzeko berariaz adierazo eta eskatu beharko dabe interesdunek. Egoera berriari epigrafea egokitu behar izan ezker, epigrafe aldaketak eskariaren hurrengo hiruhileko naturalean izango du eragina, kasu baten izan ezik: Aldaketa edo ixte hori eskabidea egin deneko hiruhilekoa baino lehen egin izana erakusten duen agiria aurkezten denean, Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergaren agiria, hain zuzen be. Horrela denean, epigrafea aldatzeak eskariaren hiruhilekoan izango du eragina, beti be, tasa hiruhilekoaren lehenengo egunean sortzen dela kontuan hartuta, horrela badagokio.

Agiri bidez aldaketa frogatzea ezinezkoa denean, udal administrazioak egingo du ikuskaketa dagoen jarduera edo erabilera egiaztatzeko eta horren arabera aplikatuko da dagokion epigrafea. Kasu honetan aldaketaren eragina beti izango da eskariaren hurrengo hiruhilekoan

17. artikulua: EGIAZTAPENAK ETA IKUSKAPENAK

1- Abonatuak izan behar dabenak badieala eta abonatua den bakoitzari benetan jagokozan jabe, erabiltzaile, epigrafe eta bestelakoak direla erregistratuta daukazanak egiaztapenak eta ikuskapenak eginda ziurtatuko dira.

2- Egiaztapen edo ikuskapenak ondorioak eduki ezker, entzunaldi izapidea beteta jakinaraziko zaie interesdunei. Alegaziorik aurkeztu ezker, espresuki erabakiko da. Alegaziorik aurkezten ez bada, erabaki espresurik ez da behar izango eta jakinarazotakoa aplikatuko da beste barik hurrengo atalaren arabera.

3- Besteak beste, egiaztapen eta ikuskapenen ondorio eta jagokezan eragin honeek aurreikusita geratzen dira:

a) Abonatu alta eman behar bada: Altaren eragina abonatua izan behar eban momentuan izango da, nahiz eta atzez eginda tasa kitapenak egiteko preskripzio epea kontutan izan behar.

b) Epigrafea aldatu behar bada: Jarduera edo erabilera noiztik dagoen zehaztu ezker, zehaztutako hiruhileko horretan edukiko du eragina epigrafe aldaketak, nahiz eta atzez eginda tasaren kitapen osagarriak egiteko preskripzio epea kontutan izan behar. Ostantzean, zehaztu ezina denean, egiaztapen espedienteak hasten den hiruhilekoan edukiko du eragina epigrafe aldaketak.

c) Jabea edo erabiltzailea aldatu behar bada: Egiaztapena egiten den dataren hurrengo hiruhilekoan edukiko du eragina aldaketak, egin beharreko kitapenen eta diru-itzulketen kalte barik.

XEDAPEN GEHIGARRIAK

Lehenengoa: Erabiltzaile-maizterrari egiten jakozan aipen guztiak baliogabetuta geratzen dira.

Bigarrena: Aldaketa honeek indarrean sartuko dira Toki Ogasunei buruzko abenduaren 16ko 9/2005 FORU-ARAUko 16. artikuluan ezarritakoa betetzen danean. Beraz indarrean sartze data horretatik aurrera ez da onartuko maizterrik tasa honen subjektu pasibo legez.

Hirugarrena: Gaur egun, hau da, 2015eko otsailaren 9an, aldaketak planteatu diranean Toki Ogasunei buruzko 9/2005 FORU-ARAUko 24. artikulua ez beteta tasaren subjektu pasibo legez erregistratuta dagozan maizterren kasuak 1.200 diran ezkerro, aplikazino informatikoa egoera barriari egokitzeko, maizterrei eta jabeei kudeaketaren aldaketa jakinarazteko eta beharrezko erregistroak egiteko edota zuzentzeko denbora behar dan ezkerro, 2015. urtean zehar egingo dira plangintza baten bidez 2. , 3. eta 4. hiruhilekotako erroldetan subjektu pasiboak aldatuta. Aldaketa gauzatzen ez dan artean ordenantzaren oraingo aldaketa onartu baino lehenago egoana izango da aplikagarria.